

2019KO URTARRILAREN 22AN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXO KIROLAKEK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA	ACTA DE LA SESION ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL CONSEJO RECTOR, EL DIA 22 DE ENERO DE 2019
--	---

<u>LEHENDAKARI ERAGINKORRA</u>	<u>PRESIDENTE EFECTIVO</u>
--------------------------------	----------------------------

P.N.V. – E.A.J. GONZALEZ PEREZ, Alvaro Jn.

<u>BERTARATUTAKO BOKALAK</u>	<u>VOCALES ASISTENTES</u>
------------------------------	---------------------------

P.N.V. – E.A.J.	AGIRRE MUNOA, Amaia and.
GUK GETXO	AMIEVA CLEMENTE, Paula
P.P.	ANDRADE AURRECOECHEA, Eduardo jn.
P.N.V. – E.A.J.	ARREGI MARTINEZ, Joseba jn.
P.N.V. – E.A.J.	CORIA YANGUAS, Elena and.
P.P.	COS YAÑEZ, Susana and.
P.N.V. – E.A.J.	EIGUREN ALBERDI, Keltse and.
EH BILDU	GUIJARRUBIA GARCIA, Nerea and.
P.N.V. – E.A.J.	ITURBE MENDILIBAR, Koldo jn.
EH BILDU	ITURRALDE FERNANDEZ, Oier jn.
P.S.E./EE	LANDA ARTECHE, José Luis jn.
GUK GETXO	OLASO GARCIA, Enrique jn.
GUK GETXO	PRADA OLLETA, Enrique jn.
EH BILDU	RODRIGUEZ LARRINAGA, Ibon jn.
CIUDADANOS	SAINZ ROBLES, Santiago jn.
P.N.V. – E.A.J.	URIARTE GOROSTIAGA, Ignacio jn.

<u>BEHIN-BEHINEKO GERENTEA</u>	<u>GERENTE ACCIDENTAL</u>
--------------------------------	---------------------------

MIÑAMBRES AMEZAGA, Aitor jn.

<u>GONBIDATUTAKO LANGILE TEKNIKOAK</u>	<u>INVITADOS PERSONAL TÉCNICO</u>
--	-----------------------------------

ZABALA LASA, Gorka jn.

<u>AZTERGAIEN ZERRENDA</u>	<u>ORDEN DEL DIA</u>
-2018ko abenduaren 13ko ez-ohiko bilera akta onartzea, hala badagokio.	-Aprobación si procede, del acta del Consejo Rector extraordinario del 13 de diciembre de 2018.
-2018ko abenduaren 18ko ohiko bilera akta onartzea, hala badagokio.	-Aprobación si procede, del acta del Consejo Rector ordinario del 18 de diciembre de 2018.
-“Getxo Kirolak” Erakunde Autonomoaren Estatutuen aldaketarako proposamena, hiritarren parte-hartzea jaso dezaten: Eztabaida eta Bozketa, eta hala balegokio, ondoren osoko bilkurara bidaltzea bere onarpenerako.	-Propuesta de aprobación de la modificación de los Estatutos del O.A.L. “Getxo Kirolak”, en orden a la incorporación de la participación ciudadana en los mismos: Debate y Votación, y en su caso, posterior remisión al Pleno para su aprobación
-Euskal Kirol Federazioen Batasunaren jabetzako bederatziti itsasontziren dohaintza onartzeko proposamena	-Propuesta para la aceptación de la donación de nueve embarcaciones, propiedad de la Unión de Federaciones Deportivas Vascas.
Informazio orokorra -Kalitate Kudeaketaren Txostena (2018 4. hiruhileko)	Información General - Informe Gestión de Calidad (4º Trimestre 2018)
Galde-eskeak	Ruegos y Preguntas

Getxon, 2019ko urtarrilaren 22an, arratsaldeko 17:00ean, ohiko bileran bildu da Zuzendaritza Batzordea, Santa Klarako Batzar Aretoan (Getxoko Udaletxea), goian aipatutako pertsonak batu direlarik.

168.- 2019KO URTARRILAREN 13KO EZ-OHIKO BILERA AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

Presidentea: 2018ko abenduaren 13ko akta aho batez onartutzat emango dugu.

Santiago Robles jaunak eskatu du "exista" hitzaren ordezkari "sexista" hitza jartzea Justifikazio Txostenaren 5.1 atalean, inpaktuaren aurretiko ebaluazioa egiteko salbuespenaren inguruan, generoa kontuan hartuta. Lehendakariak adierazi du horrela egingo dutela.

169.- 2018KO ABENDUAREN 18KO OHIKO BILERA AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

Halaber, 2018ko abenduaren 18ko akta aho batez onartutzat eman dute.

170.- "GETXO KIROLAKEN" ERAKUNDE AUTONOMOAREN ESTATUTUEN ALDAKETA-RAKO PROPOSAMENA, HIRITARREN PARTE-HARTZEA JASO DEZATEN: EZTABAIDA ETA BOZKETA, ETA HALA BALEGOKIO, ONDOREN OSOKO BILKURARA BIDALTZEN BERE ONARPENERAKO

EH Bilduk aurkeztutako zuzenketa partzialaren eta GUK Getxok eta EH Bilduk aurkeztutako zuzenketa osoaren kopia banatu die Lehendakariak alderdi politiko bakoitzari, gazteleraz zein euskaraz, eta, horiekin batera, zuzenketa bakoitzaren inguruko txosten juridikoak ere bai. Edonola ere posta elektronikoz bidaliko dituztela adierazi die.

Lehendakariak bildutakoei azaldu die akta honetan jasota uztea nahi duela Koldo Iturbe jaunak "Andres Isasi" Musika Eskolako Zuzendaritza Batzordearen bileran duela gutxi egin duen azalpena, azalpen horrek Erakunde Autonomo guztietarako balio izateagatik.

Koldo Iturbe jaunak adierazi du Estatutuak aldatzeko proposamenaren aurrean EH Bilduk bi zuzenketa aurkeztu dituela, bat osoari eta bestea partziala. Ibon Rodriguezek azaldu du osoari aurkeztutakoa EH Bilduk ez ezik, GUK taldeak ere egin duela.

Koldo Iturbe jaunak adierazi du puntu hau honela garatu dela:

Lehenik eta behin, Lehendakariak Estatutueta egingo diren aldaketak azalduko ditu.

En Getxo, a las 17:00 horas del día 22 de enero de 2019 se reúne en sesión ordinaria, en la Sala de Comisiones de Santa Clara (Ayuntamiento de Getxo), el Consejo Rector con la asistencia de las personas que arriba se relacionan.

168.- APROBACIÓN SI PROCEDE, DEL ACTA DEL CONSEJO RECTOR EXTRAORDINARIO DEL 13 DE DICIEMBRE DE 2019

Presidente: Se aprueba por unanimidad de los presentes, el acta extraordinaria de fecha 13 de Diciembre de 2018.

D. Santiago Robles solicita la sustitución de la palabra "exista" por la palabra "sexista" en el apartado 5.1 del Informe de Justificación de la exención de realizar la evaluación previa del impacto en función del género. El Presidente indica que así se hará.

169.- APROBACIÓN SI PROCEDE, DEL ACTA DEL CONSEJO RECTOR ORDINARIO DEL 18 DE DICIEMBRE DE 2018

Igualmente, se aprueba por unanimidad de los presentes, el acta ordinaria del día 18 de Diciembre de 2018.

170.- PROPUESTA DE APROBACIÓN DE LA MODIFICACIÓN DE LOS ESTATUTOS DEL O.A.L. "GETXO KIROLAK", EN ORDEN A LA INCORPORACIÓN DE LA PARTICIPACIÓN CIUDADANA EN LOS MISMOS: DEBATE Y VOTACIÓN, Y EN SU CASO, POSTERIOR REMISIÓN AL PLENO PARA SU APROBACIÓN

El Presidente reparte una copia a cada partido político de la enmienda parcial presentada por EH Bildu y la enmienda en su totalidad presentada por GUK Getxo y EH BILDU, tanto en castellano como en euskera, así como los informes jurídicos a las respectivas enmiendas, informando que en cualquier caso serán enviadas por correo electrónico.

El Presidente expone a los reunidos que quiere dejar constancia en la presente acta de la exposición que ha realizado don Koldo Iturbe en la reunión del Consejo Rector de la Escuela de Música "Andrés Isasi" hace unos instantes, dado que dicha exposición es válida para todos los Organismos Autónomos.

"D. Koldo Iturbe comenta que a su propuesta de modificación de Estatutos EHBildu ha presentado dos enmiendas, una a la totalidad y otra parcial. D. Ibon Rodriguez comenta que la presentada a la totalidad está realizada no sólo por EHBildu, sino también por GUK.

D. Koldo Iturbe indica que el desarrollo de este punto se realizará de la siguiente manera:

En primer lugar el presidente expondrá las modificaciones que lleva a los Estatutos.

Bigarren, hitza izango dute zuzenketak aurkeztu dituztenek.

Ondoren, eztabaida egingo da.

Jarraian, bozketa egingo da: lehenik eta behin, osoaren aurreko zuzenketa, eta, bigarren, zuzenketa partzialak (banan bana edo denak batera, eskatzaileak nahi duen moduan), eta, hirugarren, Erakundeko Lehendakartzari aurkeztutako proposamena.

Koldo Iturbe jaunak adierazi du taldeek jada ezagutzen dutela haren proposamena, antzekoa izango dela Erakunde guztietan, eta puntu berri bat sartzea nahi dela. Bertan, ondorengo agertuko da:

Zuzendaritza Batzordearen bilerak publikoak izango dira, eta herritarrek parte hartu ahal izango dute bakoitzak bere aldetik edo elkarteren baten ordezkari bezala.

Parte-hartzearen erregulazioa: alde batetik, gai-zerrendako puntuetan, herritarrek hirugarren interesatua izatea egiaztatzen badu, eta, bestetik, parte hartzeko aukera emanaz Gai Zerrendako "Galde-eskeak" puntuan.

Amaitzeko, aldaketa horiek burutuko dira Erakundearen Zuzendaritza Batzordearen bileretan, hurrengo legegintzaldian.

Koldo Iturbe jaunak adierazi du aldaketa horiek, halaber, ROM delakoa aldatu duen lan-taldean egindako eztabaidaren ondorio direla; bertan, alderdi guztiek parte hartu zuten, harik eta EH Bilduk eta GUK taldeak alde egin zuten arte.

Koldo Iturbe jaunak adierazi du proposamenarekin batera daudela derrigorrezko txostenak: juridikoa, genero-ikuspegiarena eta arrazoiak azaltzekoa. Testua onartzen bada, hurrengo egunean Lehendakartzaren Batzordera eramango da, behin onartuta, Osoko Bilkurara eramateko, eta, han, dagozkion alegazioak egin ahal izango dira.

Koldo Iturbe jaunak hitza eman dio Ibon Rodriguez jaunari. Azalpenaren prozeduraz galdetu du; alegia, esku hartzerik izango duten osotasunari zuzenketa aurkeztu dioten bi taldeak, eta zein izango den bozketen prozesua. Koldo Iturbe jaunak baietz erantzun du.

Paula Amieva andreak galdetu du jendaurrean jartzeko denboraldirik izango den eta proposamenen aurreko alegazioak Osoko Bilkuran egiterik izango den, Bozeramaileen Batzordearen bileran esan baitzuten ROMerako posible zela baina Estatutuen kasuan ez. Koldo Iturbe jaunak zuzendu eta baietz esan du, tratamendua antzekoa izango dela bi dokumentuetarako.

En segundo lugar tendrán la palabra quienes hayan presentado enmiendas.

Posteriormente se procederá al debate.

Finalizado éste, se procederá a la votación: en primer lugar, la enmienda a la totalidad; en segundo, las enmiendas parciales (una a una o en bloque, como quiera el demandante) y, en tercer lugar, la propuesta presentada por a la Presidencia del Organismo.

D. Koldo Iturbe comenta que los grupos ya conocen su propuesta, que será similar en todos los Organismos y que consiste en la incorporación de un nuevo punto en el que se recoge que:

Las sesiones del Consejo Rector serán públicas y que la participación ciudadana podrá producirse tanto a título individual como en representación de alguna asociación.

La regulación de dicha participación: por un lado, en los puntos del orden del día en los que el ciudadano acredite ser tercero interesado y, por otro, facilitando la participación en un punto del Orden del Día que se titule "Ruegos y Preguntas".

Para finalizar, indica que estas modificaciones se llevarán a cabo a partir de las reuniones del Consejo Rector del Organismo, en la próxima legislatura.

D. Koldo Iturbe comenta que estas modificaciones son, también, consecuencia del debate que se ha dado en el grupo de trabajo que ha modificado el ROM, y del cual formarían parte todos los partidos hasta el abandono del grupo de las formaciones EH Bildu y GUK.

D. Koldo Iturbe comenta que a su propuesta le acompañan los informes obligatorios: jurídico, de perspectiva de género y de exposición de motivos. De aprobarse el texto, al día siguiente se elevará a la Comisión de Presidencia para, una vez aprobado, elevarse a Pleno, en el que se podrán realizar las correspondientes alegaciones.

D. Koldo Iturbe da la palabra a D. Ibon Rodriguez. Éste pregunta por el procedimiento de la exposición, si van a poder intervenir las dos formaciones que presentan la enmienda a la totalidad, confirmando también cuál será el proceso de las votaciones. D. Koldo Iturbe contesta afirmativamente.

Dª Paula Amieva pregunta si es correcta la información de que habrá periodo de exposición pública y se podrán realizar alegaciones a las propuestas en el Pleno, pues en sesión de la Junta de Portavoces se había dicho que para el ROM sí era posible pero para los Estatutos no. D. Koldo Iturbe corrige y dice que sí, que el tratamiento será similar para ambos documentos.

Ibon Rodriguez jaunak aurkeztutako zuzenketak azaldu ditu, osotasunaren aurreko zuzenketatik hasita. Lehenik eta behin, adierazi du ROM aldatzeko lan-taldeak izaera ez ofiziala zuela, eta inoiz ez zela azaldu lanaren ondorioetariko bat Erakundeen Estatutuak aldatzea izango zenik; horrela, ez da bidezkoa eztabaida horretan parte hartu ez izana leporatzea, informazioa hori ez zelako existitzen. Adierazi du Lehendakariaren proposamenen aurrerapenak daudela parte hartzeari dagokionean, baina labur geratzen direla 2019an egonik. Gai Zerrendako aurreko puntuan alderdiek bozkatutakoarekin bat etorri, jakin badaki zuzenketak ez direla aurrera aterako, baina iruditzen zaio Estatutuen gainean guztiek hausnarketa sakona egin behar luketela, eta ez soilik eguneratze partzial bat egiteko, erabat aldatzeko baizik.

Paula Amieva andreak Ibon Rodriguez jaunaren azalpena berretsi du. Gainera, adierazi du ez dagoela ados Lehendakariak aurkeztutako Arrazoiaren Azalpena dokumentuan ROMaren lan-taldeak aipatzearekin, bertatik aldentu egin ziren-eta, Gobernu-taldean alderdiek erakutsi duten gardentasun eta informazio falta adieraziaz, eta hori izateko eskubidea dute herritarren ordezkari gisa.

Zuzenketa horren inguruko azalpenak amaitu ondoren, Koldo Iturbe jaunak zuzenketa partziala azaltzeko eskatu du.

Ibon Rodriguez jaunak adierazi du ados dagoela Lehendakariaren proposamenarekin lehen atalari dagokionean, baina oro har bozkatuko dela uste duenez, ez dagoela ados herritarrek egiaztatzeko moduan; hau da, "hirugarren interesatu" gisa, edota galderak edo proposamenak aurkezteko aurretik behar den denboran. Bestalde, Lehendakariak aurkeztutako bigarren alderdiek dagokionean, herritarrek ez dutela zertan soilik Lehendakariari galdetu (edota interpelatu), baizik eta Zuzendaritza Batzordean dauden ordezkari politikoei ere galde diezaiekeela, diren erantzukizun-subjektu gisa. Halaber, desadostasuna erakutsi du artikulatu berria datorren legegintzaldian indarrean sartzearen inguruan, behin betiko onartutakoan indarrean sar baitaiteke.

Azalpena amaitu ondoren, Koldo Iturbe jaunak eztabaidarako txanda eman die alderdiei. Ezer esan ez dutenez, eskerrak eman dizkie atal honetan parte hartzeagatik, ROMaren alderdiek arduratutako taldean lortutako akordio eta emaitzekin eta lan-prozesuarekin gehituz. Alderdi guztien jarreraren legitimitatea azpimarratu du parte-hartzeari dagokionean, eta etorkizunean urrats gehiago emango dituztela aitortu du, parte hartzeko heziketatik bertatik hasita, eta, une honetan, aurkeztutako proposamena egokia dela adierazi du.

D. Ibon Rodriguez toma la palabra para exponer las enmiendas que han presentado, comenzando por la enmienda a la totalidad. En primer lugar, indica el carácter no oficial del grupo de trabajo que se formó para la modificación del ROM, indicando que en ningún momento se reflejó que una de las consecuencias del trabajo sería la modificación de los Estatutos de los Organismos, no siendo lícito reprocharles su falta de participación en este debate porque esa información no existía. Reconoce que en la propuesta del Presidente hay avances en el campo de la participación, pero que se quedan cortos estando en 2019. Comenta que, en coherencia con lo votado por los partidos en el punto anterior del Orden del Día, es conocedor de que las enmiendas no saldrán adelante, pero que confirma la necesidad de que los Estatutos necesiten de una reflexión en profundidad por parte de todos no sólo para una actualización parcial, sino para su total modificación.

Toma la palabra D^a Paula Amieva, ratificando la exposición de D. Ibon Rodriguez. Manifiesta, además, su rechazo a que en el documento de la Exposición de Motivos presentado por la Presidencia, se haga referencia alguna al grupo de trabajo del ROM, del que se ausentaron, reiterando la falta de transparencia y de información que han mostrado los partidos en el equipo de Gobierno, y a la que tienen derecho como representantes de la ciudadanía.

Finalizada la exposición sobre esta enmienda, D. Koldo Iturbe invita a que se exponga la enmienda parcial.

D. Ibon Rodriguez manifiesta su acuerdo con la propuesta de Presidencia en el primer apartado pero, como supone que se votará en su globalidad, continúa manifestando su desacuerdo en la forma de acreditación de la ciudadanía como "tercero interesado", así como el tiempo que debe anteceder para la presentación de preguntas o propuestas. Por otro lado, y respecto a la segunda modificación que presenta la Presidencia, comenta que la ciudadanía no tiene por qué poder preguntar (incluso interpelar) solo a la Presidencia, sino a cualquiera de los representantes políticos que forman parte del Consejo Rector como sujetos con responsabilidad que también son. También muestra su desacuerdo con que el nuevo articulado entre en vigor en la próxima legislatura, pudiéndolo hacer en cuanto quede definitivamente aprobado.

Finalizada la exposición, D. Koldo Iturbe abre el turno al debate entre las diferentes formaciones. No realizándose ninguna, agradece la participación de las diferentes formaciones en este apartado, uniéndolo con el proceso de trabajo, acuerdos y resultados logrados en el grupo encargado de la modificación del ROM. Remarca la legitimidad de las posturas de todas las formaciones respecto a la cuestión de la participación, reconociendo que en este ámbito se irán dando más pasos en el futuro, empezando por la propia educación para la participación, y que, en este momento, considera adecuada la propuesta que ha presentado.

Alvaro Gonzalez lehendakariak bozketa egingo dutela adierazi du. Lehendakariaren proposamena onartu egin da ondorengo emaitzekin

El Presidente Alvaro González da paso a la votación, aprobándose la propuesta de Presidencia tras producirse los siguientes resultados:

	Alde / A favor	Kontra / En contra
Osoko Zuzenketa / Enmienda totalidad	6: EHBildu, GUK	11: EAJ, PSE, PP, Ciudadanos
Zatitako Zuzenketa / Enmienda parcial	6: EHBildu, GUK	11: EAJ, PSE, PP, Ciudadanos
Presidentziaren proposamena / Propuesta de Presidencia	11: EAJ, PSE, PP, Ciudadanos	6: EHBildu, GUK

Lehendakaria: beraz, "Getxo Kirolak" TEAREN Estatutuak Aldatzeko Proposamena Batzordera eramango da, Osoko Bilkuran berrikustearren

Presidente: Por tanto, la Propuesta de Modificación de los Estatutos del O.A.L. "Getxo Kirolak", será elevada a la Comisión para su revisión al Pleno.

171.- EUSKAL KIROL FEDERAZIOEN BATASUNAREN JABETZAKO BEDERATZI ITSASONTZIREN DOHAINTZA ONARTZEKO PROPOSAMENA

171.- PROPUESTA PARA LA ACEPTACIÓN DE LA DONACIÓN DE NUEVE EMBARCACIONES, PROPIEDAD DE LA UNIÓN DE FEDERACIONES DEPORTIVAS VASCAS

Lehendakaria: Historia zein den azalduko dizuet. 2008. urtean, Jolas Nautikoak egin ziren Getxon. Federazioen Batasunak Udalaren diru-laguntza jaso zuen 2006. eta 2007. urtean, Jolas horietarako materiala erosteko. Tartean, 9 itsasontzi zeuden, ez dira itsasontziak, zodiac-ak dira, eta behin Jolasak amaituta, Getxoko Udalaren edo Erakunde Autonomoarenak izateko eta erabiltzeko baldintzarekin erosi ziren. Garai hartan, aztoramen handia gertatu zen Euskal Federazioen Batasunean, Jolas Nautikoen ondoren. Ia 6 urtez egon zen lehendakaria jardunean, eta jardunean egonik, uste zuten ez zela komeni Batasunaren titulartasuna sinatzea, eta, azkenean, 2016an, lehendakari exekutibo bat izendatu zen, eta dagoeneko berak lagapena sinatu du. Hori horrela, lagapen hori Zuzendaritza Batzordera daramagu, Zuzendaritza Batzordeak baitu ahalmena dohaintza hori onartzeko.

Presidente: Os explico cuál es la historia. En el año 2008 se celebraron los Juegos Náuticos en Getxo. La Unión de Federaciones tuvo una subvención del Ayuntamiento en los años 2006 y 2007 para adquirir una serie de material para celebrar esos Juegos. Entre ese material que se incorporó había 9 unas embarcaciones, no son embarcaciones, son zodiacs, que se adquirieron con la condición, que una vez finalizados los Juegos pasarán a uso y propiedad del Ayuntamiento de Getxo u Organismo Autónomo. En aquellas fechas hubo bastante convulsión después de los Juegos Náuticos en la Unión de Federaciones Vascas, estuvieron casi 6 años con un presidente en funciones, que considerando que estaba en funciones no creían conveniente firmar una titularidad de la Unión y a final de 2016 se nombró un presidente ejecutivo que ya ha firmado la cesión y entonces sometemos la cesión al Consejo Rector porque es potestad del Consejo Rector aceptar esa donación.

9 zodiac dira, batzuk motorrekin eta besteak motorrik gabe, eta aspalditik erabiltzaileen artean banatuta daude: bi Getxo Arraunean, beste batzuk Bela Eskolan eta beste bat Kirol Portuan amarratuta dago zerbaiterako behar bada ere. Normalean egiten ditugun ekitaldi nautiko guztietarako erabiltzen dira, eta, besterik gabe. Beste bi, berriz, hondatuta daude, eta kendu egin beharko dira. Ez dago beste ezer esateko. Norbaitek zerbait galdetu nahi badu, egin dezala.

Son 9 zodiacs algunas con motor otras sin motor, están hace tiempo distribuidas entre usuarios; en este caso, dos en el Getxo Arraun, otras en la Escuela de Vela, otra la tenemos amarrada en el Puerto Deportivo por sí hace falta para algo. Se utilizan habitualmente para todos los eventos náuticos que celebramos y sin más, luego hay dos que están deterioradas que están para tirar. No tiene más historia. Si hay alguna cuestión que pueda aclarar.

Ibon Rodriguez jaunak galdetu du nork hartuko dituen bere gain ontzi horien gastuak, eta Lehendakariak erantzun dio mantentze-gastuak erabiltzaile bakoitzak bere gain hartzen dituela; guk inbertsioak hartuko ditugu, baldin eta egonez gero, orain arte ez dira egon eta. Konponketaren bat egin da, baina haiek egin dira horren kargu. Hasiera batean, horixe da erabiltzaile bakoitzarekin egindako akordioa, haiek arduratzen dira ontziaz, zaindu eta mantentzen dute. Gu soilik asegurua

D. Ibon Rodríguez pregunta quien asume los gastos de estas embarcaciones, contestándole el Presidente que los gastos de mantenimiento los asume cada uno de los usuarios, que nosotros asumimos inversiones si es que existen, que tampoco han existido hasta ahora. Alguna reparación ha habido pero la han asumido ellos. En principio, ese es el acuerdo que hay con cada uno de los usuarios, ellos se hacen responsables de la embarcación y la cuidan y la mantienen ellos.

hartzen dugu gure gain, aseguruak soilik titularra har dezakeelako.

Jose Luis Landa: akats bat dago; hain zuzen ere, txosten juridikoan, "Dohaintza onartzea". Lehen lerroan ondasun higigarriez ari da, eta, ondorioetan, bigarrenean, higiezinaz.

Lehendakaria: Aktan jasoko dugu.

Puntuaren gaineko bozketa egin dute, eta ONARTUTZAT eman da ondorengo emaitzarekin

Alde.....	10 (EAJ/PNV / PSE/EE – PP)
Abstentzia.....	7 (GUK Getxo – EH Bildu-C's)

INFORMAZIO OROKORRA

KALITATEAREN TXOSTENA, 4. HIRUHILEKOA

Lehendakaria: 4. hilabeteko kalitate-kudeaketaren txostena bidali dizuegu. Galderarik badago, nik erantzuteko?

Ibon Rodriguez: ez dakit galdera edo zalantza den. Hemen, aurkeztutako kexak edo iradokizunak jasotzen ditugu edo ikus ditzakegu, baina ez dakigu horiei zer erantzun zaien, eta guretzat interesgarriena hori da.

Egia esan, guri ez zaigu axola lehen hiruhilekoan izan den, lehen hilabetean kexa gehiago jaso diren, baizik eta kexa horiekin zer egiten den. Hobetzeko edo iradokitzeke egiten diren proposamenen ondorioz, gauzak hobetzen dira? Batzuetan, kasualitatea izango da, baina, hemen, kexa desberdinak daude edo zenbat kexa jarri diren gai ezberdinen inguruan (adibidez, banako dutxa), eta horiek departamentu ezberdinenak dira.

Nik irailen kexa bat aurkeztu nuen, baina hemen ez da ageri; beraz, ez dakit txosten honetan kexa guztiak jasotzen diren, eta, hain justu, nirea ez da agertzen; beharbada zorte txarra izango da, niri dena egokitzen zait-eta.

Eta jakina, hemen askotan esaten da 2 edo 3 egunetan erantzun dela, baina guretzat oso interesgarria da zein izan den erantzuna, erantzuna betikoa izan den; alegia, "*Gai hau dagokion Departamentura edo arlora igorriko dugu*", eta, gero, galdu egin da. Hortaz, gauzak horrela badira, txosten horrek ez digu ezer esaten, soilik jendeak Getxo Kirolak ondo edo txarto ikusten duena jakiten dugu, batzuetan, baina ez dakigu Getxo Kirolak horren inguruan zerbait egin duen. Eta baliteke hori izatea garrantzitsuena; hau da, horrek zertan eragiten du? Zer-nolako hobekuntza-prozesua dakar, hobekuntza edo hobetze-proposamen edo iradokizun horretatik abiatuta? Nolabait txosten kuantitatiboa da, baina interesgarriagoa litzateke zer erantzun mota ematen den jakitea, benetan galdera hori bete den ikustea, zeren erantzuna nik esandakoa bada, ez du inolako asebetetzerik eskaintzen, eta guk jakin nahi dugu horrek hobekuntza-prozesurik eragiten duen Getxo Kirolak erakundean, edota, hori horrela da eta

Nosotros nos hacemos cargo únicamente del seguro porque el seguro solamente puede tomar al titular.

José Luis Landa: Existe un error, en el informe jurídico "Aceptación Donación", en la primera línea habla de bienes muebles y en conclusiones, en la segunda, habla de inmueble.

Presidente: Haremos que conste en acta.

Se somete a votación este punto quedando APROBADO de la siguiente forma:

A favor.....	10 (EAJ/PNV / PSE/EE – PP)
Abstención....	7 (GUK Getxo – EH Bildu-C's)

INFORMACIÓN GENERAL

4º TRIMESTRE INFORME CALIDAD

Presidente: Os hemos enviado el informe de gestión de calidad del 4º trimestre. ¿Si hay alguna pregunta y puedo contestar?

Ibon Rodriguez: No sé si es una pregunta o una duda, aquí, recibimos o podemos ver las quejas o sugerencias que se han hecho al respecto, pero no sabemos cuál es la respuesta que se les ha dado, y para nosotros/as eso es lo más interesante.

A nosotros/as a decir verdad, no nos importa si ha sido en el primer trimestre, en el primer mes donde ha habido más quejas sino qué se hace con esas quejas, ¿hay procesos de mejora a consecuencia de esas propuestas que se hacen de mejora o sugerencias?. A veces es casualidad, vale sí, pero aquí, aparecen diferentes quejas o cuántas quejas se han puesto sobre diferentes temas, como la ducha individual, son diferentes departamentos.

Yo puse una queja en septiembre que no aparece, por lo tanto, no sé si este informe recoge todas las quejas y sí precisamente la mía no se ha recogido, igual es mala suerte, todo me toca a mí.

Y claro, aquí se dice a menudo, se ha respondido: en 2 días o en 3 días, pero nos parece muy interesante saber cual ha sido esa respuesta, si la respuesta ha sido la de siempre, es decir: "*Pasaremos este tema al departamento o área correspondiente*", y después se perdió. Por lo tanto, si es así ese informe no nos dice nada al respecto, vemos qué es lo que la gente ve mal en Getxo Kirolak o lo que ve bien, en algunas ocasiones, pero no sabemos si a consecuencia de eso Getxo Kirolak ha actuado. Y puede que eso sea lo más importante, es decir, eso ¿en qué influye?, ¿qué proceso de mejora trae consigo, partiendo de esta mejora o de esta propuesta de mejora o sugerencia?, es un informe cuantitativo de alguna manera, pero consideramos que sería más interesante saber qué tipo de respuesta se ofrece, si realmente se ofrece una satisfacción a la pregunta porque si la respuesta es la que yo he dicho no ofrece ningún tipo de satisfacción y querriamos saber si eso redundo en un proceso de

kito esaten den. Beharbada hori da interesgarriena guretzat, ez zehazki txosten honi dagokionean, baizik eta burutzen diren prozedurak edo ereduak aztertzeko etorkizunean egin daitezkeen txostenei erreparatuta.

Lehendakaria: nire ustez, urtean zehar txosten bat ematen dizuegu, eta hor agertzen dira ezarritako neurriak eta baztertutakoak; alegia, iradokizunekin edo kekekin batera, zuk diozun moduan, hobetu edo aztertu beharreko premia edo prozesu bat egoten da, eta esan ohi dugu, ez dut orain ondo gogoratzen, eta horietako txostenaren batean honela irakurri dut: proposaturiko neurriak: 27; ezarritako neurriak: 5; baztertutako neurriak: 22. Hori txostenetan agertu ohi da, ez dakit hemen badagoen ala ez.

Beste gauza bat, herritarrei beren galderaren inguruan ematen diogun erantzun zehatzari dagokionean, egun arazo bat dugu datuak babestearen inguruko gaiarekin. Galdera-mota batzuetan baliteke datuak babestu beharra. Nik hori galdetu dut, eta Legearen aplikazio berrian gaudenez, begiratu behar dugu zer galdera... Ibon, galdetu didazu, txarto ulertu ez badut, zein erantzun ematen diegun jakin nahi duzula.

Ibon Rodríguez: baina ez hain justu zein galdera. Hemen adibide bat: noiz gertatu zen, sarrera, eguna, erantzuna emateko 14 egun, ura berotu da, horixe da erantzuna, eta hor ez dago inolako daturik babestu beharrik.

Lehendakaria: adibidez, uste dut hor agertzen dela neska batek esaten zuela. Ez dakit irakurri duzuen; hots, arreta izan behar dugula hor nola jartzen dugun, hori esan nahi nuen. Getxo Kirolakera zuzendutako idatzietan agertzen diren kekek, iradokizunak edo gaiak daudela, batzuetan gai pertsonalak direnak, eta kontu handia izan behar dela hori jorratzeko moduarekin.

Bestelako erantzun batzuk egia da bistakoak direla: berotu egin da, zuzendu egin da,... baina hortxe gaude. Hala ere, egia da txosten batzuetan ezarritako neurriak jasotzen direla edo ezarri ez direnak, ez dugu nola esaten, baina bai zer egin den horrekin. Beno, berriro aztertuko dugu, arduradunari berriro aztertzeko esango diogu.

THINKING FADURA

Lehendakaria: Thinking Faduraren parte-hartze prozesu osoaren behin betiko entregagaia dut prendrive batean zuei emateko, memoria eta plano eta guzti (bat alderdi bakoitzeko).

Tira, egun batean adierazi moduan, EH Bilduk egindako galderari erantzunez, dokumentazio hau banatzen dizuet begiratzeko eta jarrera politiko bat izateko, bere garaian konpromisoa hartu nuen moduan, hori Zuzendaritza Batzordera eramango baita bozkatzera. Begiratu, galdetu, niri galderak bidali, parte

mejora en Getxo Kirolak o sí, se dice, vale, eso es así y fuera. Igual eso es lo más interesante para nosotros/as, no en lo que respecta a este informe en concreto, sino en los informes que se puedan hacer en el futuro para analizar los procedimientos o modelos que se llevan a cabo.

Presidente: Creo que os entregamos un informe anual donde sí que vienen las medidas implantadas y las rechazadas, es decir, las sugerencias o quejas suelen ir acompañadas –como dices tú– de una necesidad o de un proceso que hay que mejorar o estudiar, solemos decir, no recuerdo ahora mismo, y lo he leído en algún informe de esos, medidas propuestas: 27; medidas implantadas: 5; medidas rechazadas: 22; quiero decir, eso también suele venir en los informes, no sé si viene en este informe o no.

Otra cosa más, sobre las respuesta concretas que damos a los ciudadanos/as sobre su pregunta, actualmente tenemos un problema con el tema de la protección de datos. Qué tipo de pregunta sea, es posible que esté sujeta a protección de datos. Yo eso lo he preguntado, entonces como estamos con la aplicación nueva de la Ley, tenemos que mirar qué preguntas... Me has preguntado Ibon, si no he entendido mal, que querías saber las respuestas que les damos.

Ibon Rodríguez: Pero no precisamente cual, aquí es un ejemplo, cuando pasó, entrada, la fecha, 14 días para la respuesta, se ha calentado el agua, esa es la respuesta y así no se influye en la protección de datos.

Presidente: Por ejemplo, creo que ahí se recoge una queja sobre una chica que decía, si no lo habéis leído, que hemos tenido que tener cuidado de cómo lo poníamos ahí, a eso me refiero, que hay algún tipo de quejas, sugerencias o cuestiones que se abordan en estos escritos que se dirigen a Getxo Kirolak que a veces son temas personales y que hay que tener cuidado como los abordamos.

Otro tipo de respuestas es verdad que son obvias, o se ha calentado, o se ha corregido, vale, pero estamos ahí, pero sí que es cierto que en algunos informes se ponen las medidas que se han implantado o las que no se han implantado, no decimos como, pero sí decimos lo que se ha hecho con ella. Bueno, le daremos una vuelta de nuevo, le diremos al responsable que le de otra vuelta.

THINKING FADURA

Presidente: Yo tengo además, para entregaros un prendrive con el entregable definitivo de todo el proceso participativo del Thinking Fadura, con la memoria y los planos (uno por partido).

Bueno, como manifesté en su día, a pregunta creo además de EH Bildu, os entrego esta documentación no solo para que la miréis sino para que tengáis un posicionamiento político porque como me comprometí en su momento eso se va a someter a votación del Consejo Rector. Lo miráis, preguntáis,

hartu duen jende guztiari galde diezaiokezue; ziur parte hartu duten pertsona ugari ezagutzen duzuela, eta besterik gabe.

Ibon Rodriguez: galdera bat: Zer bozkatuko da?

Lehendakaria: Thinking Faduraren emaitzaren aurreproiektua onartzea. Pendrive horretan agertzen dena. Hori izango da Lehendakaritzaren proposamena.

Ibon Rodriguez: aurrekontua barne?

Lehendakaria: ez zara aurrekontu bat bozkatzeko konpromisoa hartzen ari. Informazio-aurrekontu bat agertzen da, zeren jakina aurreproiektuak dira. Aurreproiektua tamaina handiko gauza da, baina bai, balorazio ekonomiko bat ere sartuta dago.

Enrique Olaso: Noiz izango da gai horren inguruko eztabaida? Hurrengo Zuzendaritza Batzordean?

Lehendakaria: asmoa da bozkatzea beranduenera ere martxoan; hau da, bi hilabete dituzue begirada bat emateko. Deitu eta oraintxe bozkatuko dugu esanez gero, bihar bertan egingo genuke bozketa, baina badakidenez material oso luzea dela, plano eta informazio askorekin, begiratu eta galdetu. Nik talde erredaktorearengana eraman ditzaket edota galdetu saioan egon den jendeari, jasotzen den, jasotzen ez den, jada badakizue, ez daukat azaldu beharrik zein den zuen lana.

GALDE-ESKEAK

Ordainketak soilik goizez Getxo Kirolaken

Lehendakaria: Ciudadanosen galdera bat dut, aktan jartzerik izan ez dudana, deialdia egin ondoren sartu zelako.

Lehendakariak galdera irakurri du: *Zergatik Getxo Kirolakeko ordainketak soilik goizez egin daitezke eta zergatik ezin dira arratsaldean edo baita asteburuan ere egin?*

Lehendakaria: dakizuen moduan, hainbat Zuzendaritza Batzordeetan eskatu da, behin eta berriz esan da eta batzuetan bozketa ere egin da arratsaldez jendea artatzeko talde bat osatzeko; oraintxe bertan, LZ aldatu genuen azken Zuzendaritza Batzordean, soldatarekin lotuta ez zegoena baizik eta egiturazko plantillarekin, plaza bat aldatu genuen, kontserbazio-plaza bat aldatu genuen, eta jendearen arretara pasa genuen, arratsaldeko herritarrak artatzeko taldea sortzen hasteko helburuarekin. Oraintxe bertan, pertsona bat dago, duela gutxi hasi dena, eta prestatzen ari da, eta azkarregi iruditzen zitzaigun bera bakarrik arratsaldetan lanean jartzeko. Lan-araudiak aukera ematen digu plantillarekin lanaldiaren %10a behartzeko, arratsaldetan jartzea derrigortzeko, baina uste dugu 10 urtez egon bagara, lanaldiaren %10arengatik ez ditugula goizez lan egiten duten pertsonak arratsaldez lanean jarriko denbora jakin batean. Beraz, maiatzean

me mandáis preguntas a mí, podéis preguntar a toda la gente que ha participado, que seguro que conocéis a infinidad de personas que han participado y sin más.

Ibon Rodriguez: Una pregunta. ¿Qué es lo que se va a votar?

Presidente: Aprobar el anteproyecto resultado del Thinking Fadura. Lo que va en ese pendrive. Esa va a ser la propuesta de presidencia.

Ibon Rodriguez: ¿El presupuesto incluido?

Presidente: No te estás comprometiendo a votar un presupuesto. Lleva un presupuesto informativo porque obviamente son anteproyectos, entonces un anteproyecto no deja de ser un orden de magnitud, pero sí, sí lleva incluido también una valoración económica.

Enrique Olaso: ¿Cuándo se hará el debate de este tema? ¿en el siguiente Consejo Rector?

Presidente: La idea sería someterlo a votación lo más tarde en marzo, es decir, tenéis dos meses para mirarlo. Si me llamáis y me decís llévalo ya, pues mañana, pero como entiendo que es un material extenso que tiene un montón de planos, información, lo miráis, me consultáis todas las preguntas que tengáis, yo se las puedo pasar al equipo redactor, o incluso con la gente que conocéis que ha estado en la sesión, si se recoge, no se recoge, pues ya sabéis, no tengo que explicar cuál es vuestro trabajo.

RUEGOS Y PREGUNTAS

Abonos únicamente por la mañana en Getxo Kirolak

Presidente: Tengo una pregunta de Ciudadanos que no he podido poner en el acta porque entró después de hacer la convocatoria.

El Presidente lee la pregunta: *¿Por qué los abonos de Getxo Kirolak únicamente pueden pagarse en horario de mañana y no es posible realizar esta gestión por la tarde o incluso los fines de semana?*

Presidente: Como sabéis en varios Consejos Rectores he venido pidiendo, insistiendo y alguna vez también, se ha sometido a votación la formación de un equipo de atención al público a la tarde; de hecho ahora mismo, en el último Consejo Rector que modificamos la RPT, que no estaba vinculada a salarios, sino vinculada a plantilla estructural, cambiamos una plaza, modificamos una plaza de conservación y la pasamos a atención al público, cuyo objeto era básicamente empezar a formar ese equipo de atención al público vespertino. Ahora mismo hay una persona sola que se ha incorporado recientemente que está en formación y nos parecía un poco precipitado ponerla a ella sola a trabajar por las tardes. La normativa laboral nos permite forzar con la plantilla el 10% de su jornada, obligarles a ponerla por las tardes, tampoco creemos que si hemos sobrevivido durante 10 años tampoco vamos a forzar por un 10% de la

izango da beste fase garrantzitsua, udako inskripzioak egiten diren garaia, eta espero dugu ordurako gutxienez bi pertsona lanean izatea arratsalde, nolabaiteko estaldura ematearren.


Santiago Sainz: bitxia da arratsalde langilerik ez egotea, Gobela eta Faduran langilea baitago harreran, eta baita asteburuetan ere. Hiru hilabeteko edo urteko ordainketa egin nahi baduzu, soilik goizez joan behar baituzu, besterik gabe gauza datafonia pasatzea izanik.

Lehendakaria: bai, baina han lanean dagoen pertsona ez dago prestatuta eta ez zaio ordaintzen lan horiek egiteagatik; beraz, dagoenerako dago eta dagoenerako kontratatuta dago.

Duela 14 bat urte, Getxo Kirolak eta langileen arteko negoziazio kolektiboan, arratsaldeko lanaldiak kentzeko erabakia hartu zen eta lan-eskubideetan atzera egitea, eta ez da erraza. Egin dena da zerbitzu berri bat sortzea edo plaza berriak sortzea zerbitzu berrirako.

Tratatu beharreko bestelako auzirik gabe, biltzarrari amaiera ematen zaio, 17:20ean akta honen goiburukoan aipatutako egunean.

Lehendakaria / El Presidente



jornada, al resto de las personas que trabajan a la mañana a que trabajen a la tarde durante un tiempo determinado. Entonces, esperamos que para mayo que será la otra fase importante, que es cuando se producen las inscripciones de verano, sí podemos tener ya por lo menos, dos personas trabajando a la tarde que puedan dar cierta cobertura.

Santiago Sainz : La duda viene porque es curioso que por la tarde exista siempre, tanto en Gobela como en Fadura, un trabajador en recepción, y también los fines de semana pero luego si quieres hacer el pago del trimestre o anual y tal, tengas que ir únicamente por la mañana, cuando simplemente con el datafono podría pasarlo y ya está.

Presidente: Si, pero la persona que está trabajando allí no está ni cualificada ni se le paga para que haga esas funciones, entonces está para lo que está y está contratada para lo que está.

Hace aproximadamente 14 años en una negociación colectiva de Getxo Kirolak con sus trabajadores/as se llegó al acuerdo de quitar las jornadas de tarde y volver atrás en derechos laborales y no es fácil. Y lo que se ha hecho es crear un servicio nuevo o crear unas plazas nuevas donde hay un nuevo servicio.

Sin más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 17:20 horas del día mencionado en el encabezamiento de la presente acta.

Behin-behineko gerentea / Gerente accidental



